



IRABAZI ITURRIAK

Enpresa bat martxan jartzeko eta aurrera eramateko garrantzitsua da jakitea nola lortuko dugun dirua eta nola finantzatuko dugun diru hori. Gure enpresaren helburua zaratarik egiten ez duen ile-lehorgailua egitea eta saltzea da, hortik etorriko dira gure diru-sarrerak.



Proiektuari hasiera emateko, 25.000€-ko inbertsioa beharko dugu. Diru hori ez da guztiz gure aurrezkiekin ordaintzeko modukoa, beraz, bankutik mailegu bat eskatu beharko dugu, 10.000€ ingurukoa, eta gainerakoa gure aurrezkiekin finantzatuko dugu. Diru hori erabiliko dugu ile-lehorgailuen lehen unitateak egiteko, beharrezko materialak erosteko, hau da, ile-lehorgailuaren motorra, plastikoak ile-lehorgailua egiteko, kableak... eta produktua saltzeko oinarritzko egitura prestatzeko, hala nola webgunea sortu eta publizitatea egiteko. Hauen bidez, produktua kalitate onezkoa egingo dugu eta bezeroei konfiantza emango diegu.



Gure diru-sarrera nagusiki ile-lehorgailuen salmenta izango da. Salmenta bi modutan egingo dugu. Alde batetik, gure webgunearen bidez, online salmenta egingo dugu; horrela, bezeroek etxetik erosteko aukera izango dute. Bestetik, denda fisikoetan ere salduko dugu, hala nola, MediaMarkt, Carrefour eta Ghd. Denda

hauetan, bezeroek produktua ikusi eta probatzeko aukera izango dute, eta horrek erosketari errazten du errazago erabakitzen dutelako beraien gustukoa den ala ez. Bi kasuetan, produktu bera saltzen da, eta beraz, diru-sarrerak ile-lehorgailu beraren salmentatik datoz.

Ondorioz, gure enpresaren irabazi-iturriak argi daude. Hasierako inbertsioa aurrezkiekin eta bankuko mailegu txiki batekin finantzatuko dugu, eta diru-sarrera guztiak ile-lehorgailu isilaren salmentatik etorriko dira, bai online bidez, bai denda fisikoen bidez.